

# ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

## GENERAL CONDITIONS

### GERALEKUAN

- Itxaron autobusari geralekuan edo markesinan. Adierazi igotzeko asmoa duzula.
- Prestatu txartela/eskudirua.
- Ibilgailua beteta badago, ez igo autobusera.

### GELTOKIAN

- Agertu behar besteko denborarekin eta erosi zure bidaia-txartela.
- Lokalizatu informazio-pantailetan zure zerbitzua zein nasatatik irteten den.
- Izan eskura zure bidaia-txartela, eta gorde ibilbidea amaitu arte.

### SARRERA

- Sarrera orokorra aurreko atetik.
- Errespetatu sartzeko txanda.
- Itxaron ibilgailua gelditu arte.
- Ordaindu, baliozkotu edo aurkeztu garraio-titulua, eta gorde ibilbidea amaitu arte.
- 6 urtetik beherakoek ez dute bidaia-txartelik ordaindu behar. 18 urtetik beherakoek heldu batekin bidaiatu behar dute, edo, bakarrik joatekotan, Lurraldebus/Mugi txartel pertsonalizatua eraman behar dute.

### BIDAIA

- Ez oztopatu ibilgailuaren barruan ibiltzeko lekua.
- Errespetatu lehentasunez okupatzeko espazioak.
- Behar bezalako aurrerapenarekin jakinarazi geldialdia egin nahi duzula, eta jaitsi horretarako gaitutako atetatik.



### Mugikortasun urriko pertsonak

- Eserlekuak eta espazio erreserbatuak erabiltzeko lehentasuna



### Gurpil-aulkiak eta ibilgailu homologatuak

- Ahalik eta segurtasunik handiena bermatuz eta aplikatzekoa den araudiaren arabera sartu beharko dira.
- Gehenez ibilgailu bakoitzeko bi, fitxa teknikoaren zehaztapenen arabera.
- Erosotasunik handiena ematen dien eta ahalegin fisiko txikiagoa eginarazten dien atetik sartu eta jaitsi daitezke
- Ibilgailuaren martxaren noranzkoarekiko aurrerantz edo atzerantz kokatuta, kasuaren arabera, betiere freno jarrita.



### Animaliak

- Hauek dira ibilgailuen barruan sartzeko baimena duten lagun egiteko animaliak: espezie eta ezaugarri guztietako txakur eta katuak, arriskutsuak izan daitezkeenak izan ezik.
- Baimendutako animaliak garraiatzeko baldintzak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren araudiaren 21. artikuluan berariaz adierazitakoak dira.



### Itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak

- Sartzeko lehentasuna. Ez daude kopuruaren edo ordutegiaren mugei loturik.



### Haur-kotxeak eta -aulkiak

- Gehenez: 2. Lehentasunezko sarrera: gurpil-aulkia.
- Sarrera, ahal dela, horretarako gaitutako atetik. Arduradunak helduta eraman behar du bidaia osoan.
- Jaisteko, oro har, horretarako gaitutako atea erabiliko da. Lehenik eramailea irtengo da eta gero haur-kotxea, harrapatzerik gerta ez dadin.
- Zamategia edo maletategia duten autobusetan, haren barruan tolestuta joango dira.
- Gurpil-aulkiek eta haur-kotxe eta -aulkiek sartzeko eta erdiko plataforma okupatzeko lehentasuna dute.



### Fardelak

- Gehieneko neurria: 100 x 60 x 25 cm.



### Bizikletak

- Zamategia edo maletategia duten autobusetan, haren barruan joango dira.
- Gainerako autobusetan ere eraman ahal izango dira, baldin eta gainerako bidaiariei eragozpenik sortzen ez bazaie.
- Kasu guztietan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren araudiaren II. eranskina eta 20. artikulua beteko dira.